

Abeltzaintzan antibiotikoak erabiltzeari buruzko Errege Dekretu berria

MAPAk duela gutxi argitaratu du abeltzaintza-ustiategi guztietan (norberaren kontsumorako ustiategietan izan ezik) aplikatzekoa den antibiotikoen erabilera jasagarria ahalbidetzeko neurriak ezartzen dituen araua.

2011z geroztik, mikrobioen aurkako erresistentziari (RAM) buruzkoa ekintza-planak daude Europa mailan, EBko estatu kide gehienetan; estatu mailan, berriz, [PRAN plana eta haren Reduce programa daude](#) 2014az geroztik.

Albaitaritzako sendagaiei buruzko 2019/6 (EB) Erregelamenduak azpimarratu egiten du mikrobioen aurkako erresistentziak **osasun-arazo gero eta larriagoak direla Batasunean eta munduan, eta beharrezkoa dela erresistentziak sortzeko arriskua murriztea**. Bestalde, EEk "baserritik mahaira" Estrategiaren Komunikazioa argitaratu zuen; horren arabera, **helburua da 2030erako antimikrobianoen salmenta % 50 murriztea**.

Lege berri horren bidez, MAPAk metodo bat ezartzen du **espezie bakoitzarentzako antibiotikoen ohiko eta hiruhilekoko erabilera kalkulatzeko eta ustiategien araberako sailkapen zooteknikoa egiteko**. Horiek hiruhilekoko bakoitzaren 1ean eguneratuko dira automatikoki PRESVETen eta **erreferentziazko adierazleekin alderatu ahal izango dira**. Adierazle horien BOEn argitaratuko dira, beranduenez, urte bakoitzeko ekainaren 1ean.

Autonomia-erkidegoek ustiategietako titularren esku jarri ahal izango dituzte neurriak, PRESVETen, titularrek beren ustiategia zein egoeratan dagoen jakin dezaten, erabilerari dagokionez, eta, beharrezkoa bada, neurri zuzentzaileak ezar ditzaten.

Errege-dekretu hau 2023ko urtarrilaren 2an jarriko da indarrean, eta ustiategiaren osasun-plan integralari buruzko araudia indarrean jartzen denetik aurrera aplikatuko da.

Informazio gehiago esteka honetan:

Hegazti-gripeak hegaztiengan eta pertsonengan daukan arriskuaren ebaluazioa arina

Osasun Ministerioak ebaluazio arina argitaratu du foku berriek hegaztietan duten arriskuari eta pertsonen kasu berriei buruz, One Health ikuspegitik. Ebaluazioak ondorioztatu du hegaztietan foku berriak agertzeko arriskua **oso handia** dela oraindik, birusa oso hedatuta dagoelako basoko hegazti-espezieen artean. Bestalde, arriskua **txikia** da hegazti gaixoen eraginpean dauden ustiategietan esposizio okupazionala duten pertsonentzat eta **oso txikia** herritar orokorrentzat. Haragia edo arrautzak

kontsumitzeagatiko arriskua hutsala da. Txostenenean birusagatik infektatuta egon ahal diren hegaztiekiko esposizioa duten pertsonentzako gomendioak ematen dira.

Osasun Alertak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (Osasun Ministerioaren menpe dago) hegazti-gripeak hegaztiengan eta pertsonengan daukan arriskuaren ebaluazioa arina argitaratu du. Ebaluazio hori egiteko arrazoia honako hau da: Espainian hegazti-ustiategi batean lan egiten duten pertsona batengan A hegazti-gripearen lehenengo kasua detektatzea (duela gutxi hegazti-gripearen agerraldia pairatu du). Ordura arte, gaixotasun horren bi kasu soilik detektatu ziren bi pertsonarengan mundu osoan, bata asintomatikoa eta bestea sintomatologia oso arinekoa.

2021-2022 aldian zehar, mundu-mailan hegazti-gripearen eraginik handiena erregistratu da hegaztietan; gainera, udako hilabeteetara luzatu da, eta hori ez da inoiz gertatu.

Mundu-mailan birusak duen esposizioa lotuta egon daiteke basoko hegaztiekiko duen etengabeko egokitzapenarekin. Halaber, gertakari hori ikusita, eta joan den udaberrian detektatutako fokuek aintzat hartuta, badirudi birusa eta gaixotasuna endemiko bihurtu direla gure inguruko basoko hegaztien artean. Horrez gain, egiaztatu da basoko hegazti autoktonoen artean transmititzeko gaitasuna duela.

Premisa horiek aintzat hartuta, ebaluazio horretan ondorioztatzen da **agerraldi berriak egoteko arriskua oso handia dela oraindik**. Agerraldi horiek eragin handia dute hegaztien osasunean eta galera handiak eragiten dituzte, hegazti-ustiategietan duten eraginaren ondorioz.

Hegazti-gripearen birusa hegaztiekin gizakiei transmititzea gertakari ezohikoa da eta pertsonen arteko transmisioa oso ezohikoa. Duela gutxi argitaratutako ebaluazioaren arabera, detekzio berriak agertzeko arriskua **txikia** da hegazti gaixoekin kontaktuan dauden pertsonentzat (kutsatutako abeltegietako langileak, albaitariak, ehiztariak, ornitologoak eta hegaztiekin kontaktuan dagoen ingurumeneko edozein agente). Gainera, pertsonen artean transmititzeko gaitasun txikia dela eta, herritar orokorrentzat dagoen arriskua **oso txikia** da. Bestalde, hegazti-haragia edo arrautzak kontsumitzearekin lotutako arriskua **hutsala** da.

Horrez gain, pertsonetan kasuak agertzekotan, bigarren mailako kasuak geratzeko aukera **oso txikia** da, gaixotasunaren kutsakortasunari buruz gaur egun eskuragarri dagoen informazio epidemiologikoa eta mikrobiologikoa dela eta. Bestalde, herritar orokorren artean giza gripearen eta H5N1 hegazti-gripearen arteko koinfekzioa gertatzeko aukera ere (birusaren berrantolaketa eragin eta gizakien arteko transmisiore egokitutako birus berri bat sortu ahalko luke) **oso txikia** da; dena den, aintzat hartu behar da hegazti-abeltegietako langileetan.

Ebaluazio honetan emandako gomendioen artean, honako hauek nabarmendu ahal dira:

- Zaintza-sistemak mantentzea, bai animalietan, bai pertsonetan, eta gaixotasunaren edozein susmoren berri albait arinen ematea.
- Infektatuta egon daitezkeen hegaztiekiko esposizioa murriztea.
- Biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki hegazti-ustiategietako basoko hegaztiekin kontaktua murriztera bideratutakoak.
- Hegaztiekin kontaktuan egoten diren pertsonen babeserako neurri egokiak gomendatzea animaliekin kontaktuan dauden uneetarako.

- Animalia infektatuen eraginpean egoteko arriskua duten talde okupazionalak urtaroko gripearen txertoa jartzeko gomendia indartzea.
- Jarduketa-protokoloak jarraitzea ustategietan dauden agerraldietan eta birusagatik infektatutako animalien eraginpean dauden pertsonentzat.
- Animalia-osasunaren, ingurumen-osasunaren, osasun publikoaren eta laneko osasunaren arteko koordinazioa bermatzea.

Patogenotasun handiko hegazti-gripeari (PHHG) buruzko informazioaren eguneraketa

EFSAk, ECDCk eta hegazti-gripearen EBko erreferentziako laborategiak gaixotasunari buruzko informazioaren eguneraketa argitaratu dute; izan ere, birusaren detekzio-kopuru ezohikoa hauteman da udan hegazti basati eta etxeko hegaztietan. Hortaz, etxeko hegaztiak PHHGrekin kutsatzeko arriskua areagotu da, udazkeneko migrazio-aldia datozen hilabeteetan hasiko baita. Bukatzeko, PHHG arintzeko estrategia egokiak eta jasangarriak definitzea eta inplementatzea gomendatzen da, hala nola infekzioa goiz hautemateko zaintza-estrategiak eta biosegurtasun-neurri egokiak.

Gaur egun, hegazti-gripea Europan egiaztatutako epidemiarik handiena eragiten ari da: 2.467 agerraldi hauteman dira eskortako hegaztietan eta 47,7 milioi hegazti sakrifikatu dira eragindako establezimenduetan. Halaber, itxian dauden hegaztietan 187 agerraldi jakinarazi dira eta patogenotasun handiko hegazti-gripearen 3.573 agerraldi, berriz, hegazti basatietan. **Aurten gaixotasunaren irismen geografikoa ezohikoa da.** Agerraldiak jakinarazi dira Svalbard uharteetan (Norvegia), Portugalgo iparraldean eta Ukrainako ekialdean, besteak beste; Europa osoan 37 herrialdetan hauteman da.

2021eko udazkenean patogenotasun handiko hegazti-gripeak HPAI A (H5N1) lehenengo aldiz Atlantikoa gurutzatu zuen. Europatik Ipar Amerikara iritsi zen migrazio-bideen bitartez, eta epidemia larria eragin zuen eskortako hegaztietan, Kanadako hainbat probintzietan eta Estatu Batuetako hainbat estatutan bereziki, eta hilkortasun handia eragin zuen hegazti basatietan.

Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak (ECDC) ondorioztatu du Europako biztanleria orokorra kutsatzeko arriskua **txikia** dela, eta profesionalki esposiziopean dauden pertsonen kasuan, berriz, **arrisku txikia eta ertaina**. Hala ere, ziurgabetasuna handia da, hegaztien artean kutsatzen ari den hegazti-gripearen birusa askotarikoa baita. Hala ere, kutsatuta dauden eskortako hegaztien produktuekiko esposizioa izan duten gizakien arteko transmisio-arriskua **hutsala** da.

Animalien artean kutsatzen diren hegazti-gripe birusek gaitasun zoonotikoa dute, eta, hortaz, ECDCk kontrol- eta jarraipen-neurriak ezartzea gomendatzen du animalia- eta gizaki-taldeetan. Neurri horien artean **genoma osoa sekuentziatzea** dago, agerraldiak sakonago ikertzeko aukera ematen baitu.

PHHGari aurre egiteko neurri hauek gomendatzen dira:

- Epe laburrerako, ertainerako eta luzerako prebentzio-estrategiak identifikatu eta ezartzea, batez ere hegazti-dentsitate handiko eremuetan eta hegazti-gripearen esposiziopean egoteko minberak diren ekoizpen-sistemetan.
- Hegazti kutsatuekin kontaktuan egon daitezken ugaztun eta pertsonen zaintza areagotzea, hegazti eta ugaztunen eta/edo pertsonen arteko eta ondoren pertsonen arteko transmisio-kasuak garaiz detektatzea errazteko. Esposiziopean egon diren pertsonen kasuan, ager daitezkeen arnas sintomak, sintoma neurologikoak edo konjuntibitisa zaintzea, esposiziopean egon eta hurrengo 10 egunetan.
- Animalia eta pertsonengan hautemandako birusen zaintza genomikoa egitea, osasun publikorako eta animalia osasunerako garrantzitsuak izan daitezkeen birusak azkar detektatzeko.

Abeltzaintzan erabiltzen diren antibiotikoen autokontrolerako tresna berria

MAPAk tresna berri bat sortu du abeltzainei erraztasunak emateko antibiotikoen erabileraren autokontrolaren esparruan, Albaitaritzarako Antibiotikoen Errezeten Kontrolerako Sistema Informatikoaren (PRESVET) barruan.

PRESVETen bidez, albaitaritzarako antibiotikoen errezeten informazioa zentralizatzen da estatu mailan, abeltzaintza-ustiategietako antibiotikoen kontsumoa monitorizatzeko.

Orain arte, albaitari profesionalak sarbidea zuten, albaitaritzarako errezetei buruzko informazioa bertan iraultzeko. Hemendik aurrera, **REGAn izena emanda dauden titularrek ere** abeltzaintza-ustiategietako antibiotikoen kontsumoari buruzko hiru hilez behingo txostenak kontsultatu ahal izango dituzte; gainera, estatu mailan alderaketak egin ahal izango dituzte, espezie eta sailkapen zooteknikoaren arabera.

Halaber, albaitari profesional **bati edo batzuei** eman ahal izango diete sartzeko **baimena, txostenak ikusteko**, eta, horrela, **aholkularitza errazteko**.

Elikagaiak ekoizteko animalietan erabiltzen diren antibiotikoen autokontrolerako tresnak garatzean, indartu egiten dira MAEri aurre egiteko programak.

[**Abeltzainaren modulua**](#) eskuragarri dago **jada PRESVETen**. Sisteman erregistratzeko, ziurtagiri elektronikoa erabili ahal izango da, edo erabiltzailea eta pasahitza, REGA titularraren NANaren bitartez identifikatuta.

PRESVETen alta emateko dokumentua eta infografia:

Hegazti-gripearen egoerari buruzko eguneratzea

EFSAk txosten bat argitaratu berri du, EBn 2021-2022 denboraldiko HGaren egoera epidemiologikoaren egoera eguneratzeko.

Agentziak denboraldi honetako agerraldien kopurua eguneratu du. Guztira, patogenotasun handiko hegazti-gripearen (PHHG) **2.653 foku** jakinarazi dira EBko **33 herrialde**tan abenduaren 9tik martxoaren 15era bitartean. Gehienak **Frantzia, Italian, Hungarian eta Polonian** erregistratu dira.

- Birusek **hegaztiekiko lehentasuna mantentzen** dute; hala ere, **ugaztunetarako egokitzapenak** aurkitu dira, baina **esporadikoki**.
- Aurreko denboraldiarekin alderatuta, IAAPa hegazti urtarretan ez ezik **beste hegazti basati askotan ere aurkitu da**. Eta horrek eskortako hegaztietarako transmisioa erraztu egin du. Aurreikuspenen arabera, **karga birikoaren areagotze horrek** berekin ekarriko du **eskortako hegaztien infekzioaren areagotze potentziala**; eta **datozen hilabeteetan** hala mantenduko da seguruenik.
- **Ekoizpen intentsiboko** eskortako hegaztietan (broiler) **konfirmatutako** kasu asko daude, baina arrisku txikikotzat hartzen dira, barnealdean hazita daudelako. Hala ere, hainbeste kasu egoteak esan nahi dezake **aplikatutako biosegurtasun-neurrien ahalmena eta eraginkortasuna ez direla oraindik ere eraginkorrak**.
- Erresuma Batuan, Errusian eta Nigerian H5 subfilumaren **birus-transmisioak gizakietan**, Europa osoan animalia basatietan eta Txinan gizakietan H5N6 subfilumaren kasu konfirmatuek **azpimarratu egiten dute IAren birusaren gaitasun zoonotikoa**, eta birus horiek beste ugaztun batzuetara egokitu daitezkeela.
- **Gizartearentzat**, oro har, kutsatze-**arrisku baxua** dago. Hala ere, **hegaztiekin kontaktuan** daudenen kasuan, arriskua **baxua-ertaina** da.
- IAAPren birusaren **iraunkortasunak eta etengabeko zirkulazioak** hegazti migratzaileetan eta eskortako hegaztietan arriskua **izaten jarraituko du Europako hegaztien sektorearentzat**. Eta horrek **eskatzen du** biosegurtasun-neurrietan, zaintza-planetan eta ekoizpen-sistema ezberdinetako hautemate goiztiarreko neurrietan oinarritutako **arintze-estrategiak ezartzea**.
- **Hautemate goiztiarrak eta erantzun arinak**, aurretik adierazitako guztiarekin batera, epidemiaren **arrisku handiko aldia murrizten dute**, eta **bigarren mailako fokuak saihesten** laguntzen dute, batez ere hegaztien **dentsitate handiko** eremuetan. Hori dela eta, **Agintaritza Eskudunek sektorea informatu beharko lukete gaiaren garrantziari buruz, eta neurri eraginkorrak ezarri beharko lituzkete sektore horretan lan egiten dutenen esposizio-arriskua murrizteko**.
- **One Health ikuspuntuarekin**, birusarekiko esposizio handia duten **ugaztun eta gizakien** **zaintza indartu beharko litzateke, baita Osasun Publikoaren zein lan-arrisku**etako **erakunde ofizialen inplikazioarekin** ere. Batez ere **gaixotasuna aitortzen** den kasuetan: **huste sanitarioak** egiteaz arduratzen diren **langileak (konjuntibitisa)**. Horrelako kasuetan, langileei azterketa **serologikoak** egitea gomendatzen da.

Albaitaritzako sendagaiei buruzko araudi berria

Indarrean sartu da 2019/6(EB) Erregelamendua, albaitaritzako sendagaien erabilerari buruzko araudi berria ezartzen duena.

Arau hori duela hiru urte onartu zen, baina urtarrilaren 28tik da aplikagarria, eta garrantzitsua da helburuak lortzeko bi mailatan: «Osasun bakarra» Europako Ekintza Plana eta «Baserritik mahaira» estrategia.

Araudiak neurri zehatz ugari aurreikusten ditu [antimikrobianoen aurkako erresistentziaren \(AME\) kontra borrokatzeko](#) eta animalietan antimikrobianoen erabilera zuhurra eta arduratsua sustatzeko, besteak beste:

- Antibiotikoen prebentziozko erabilera debekatzeko animalia taldeetan.
- Animalietan antimikrobianoen erabilera metafilatiktikoa murriztea.
- Hazkundera sustatu eta errendimendua areagotzeko antimikrobianoak erabiltzeko debekua indartzea (baita pentsuetan hazkunderaren sustatzaile gisa antibiotikoak erabiltzeko 2006ko debekua ere).
- Zenbait antimikrobiano soilik gizakientzat gordetzeko aukera.
- Estatu kideek animalietan antimikrobianoen salmentari eta erabilerari buruzko datuak jasotzeko betebeharra.

Helburu nagusia da herritar guztiak irabazle izatea legedia berri horrekin, batez ere antimikrobianoen aurkako erresistentziaren kontra borrokatzeko neurriei esker; izan ere, horiek giza osasunarekin, abereen osasunarekin eta ingurumenarekin duten harremana agerikoa da.

Erlezaintzako ekoizpenean antimikrobianoak arduraz erabiltzeko gida

FAOk erlezaintzako ekoizpenerako jardunbide egokiak garatzen dituen eskuliburua argitaratu berri du, antimikrobianoen erabilera murrizteko helburuarekin.

Kontuan hartuta ezti-erleek ingurumen-biodibertsitatean eta, beraz, **nekazaritza-ekoizpeneko sistemetan duten garrantzia**, FAOk, gida honetan, erlezaintzako **jardunbide egokiak eta biosegurtasun-neurriak** zehazten ditu ezti-erleei eragiten dieten **gaixotasun garrantzitsuenetako bakoitzerako, One-Health ikuspegiarekin**. Helburua ez da soilik ezti-erleak babestea, baita gizakien eta ingurumenaren osasuna ere.

Dokumentuak **erlezaintzako osasuna du ardatz**, eta gaur egun gehien erabiltzen diren **antimikrobianoen erabilera egokia eta zuhurra** egin behar dela azpimarratzen du, erleen **produktuetan hondakinak** eta mikrobioen aurkako erresistentzia (**RAM**) bezalako efektu kaltegarriak saihesteko.

Erleen osasuna bermatzeko, **albaitaritzako profesionalek lankidetzan estuan lan egin behar dute abeltzaintzako ekoizpenean adituak** direnekin, eta neurri espezifikoak hartu behar dira:

- **Antimikrobianoak behar bezala erabiltzeari eta kontrolatzeari** buruzko legeria aplikatzea (preskripzioa, banaketa, administrazioa, hondakinak erretiratzeko denbora, etab.) , eta dagozkion kontrolak egitea.
- Erle biziaren mugaz gaindiko eta tokiko **mugimenduari** eta material genetikoari buruzko legeria indartzea.
- **Albaitariei erle-osasunarekin** lotutako prestakuntza ematea.
- **Erlezainei prestakuntza** ematea: erlezaintzako jardunbide egokiak eta biosegurtasun-neurri egokiak, erlauntzak hazteko eta kudeatzeko ziurtagiri teknikoak.
- **Erlezain guztiak elkarren artean koordinatzea**, esku hartzeko uneari, aplikatu beharreko tratamendu motari eta beste neurri egoki batzuei dagokienez.
- Erleen eta kontsumitzaileen osasuna nahiz ingurumena babesteko **erlezaintza-eredu jasangarriak** aplikatzea.
- Nekazarien eta erlezainen arteko **harremanak arautzea eta kontrolatzea, koloniak gal ez daitezten.**

Gidalerroen helburua da sektorearen barruan gaur egun dauden errokeni buruzko informazioa ematea, eta, hala, **ezti-erleen kolonien ekoizpen jasangarrira eta osasunera bideratutako ekintzak gauzatzeko, erlauntzako produktuetako hondakinaren arriskuak murriztea** eta, horrela, mikrobioen aurkako erresistentziaren garapenari aurrea hartzea.

Arriskuaren ebaluazioa: Niloko birusaren sukarra Espainian

Osasun eta Kontsumo Ministerioaren mendeko Osasun Alertak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (CCAES) txosten bat egin du, eta, bertan, gaitz horren egoera ebaluatu eta gaitza kontrolatzeko hainbat gomendio ematen ditu.

Niloko birusaren sukarraren birusa **2000az geroztik zirkulatzen da** Espainian, eta **2001az geroztik egiten da animalien ikuskapena** eta **2007az geroztik gizakiena**. 2019ra bitartean, noizbehinkako 6 kasu detektatu dira gizakietan.

2020an, intzidentziak gizakiengan gora egin zuenez (77 kasu gizakietan; % 97k meningoentzefalitis zuten eta horietako 8 hil egin ziren) eta birusa herritarrei transmititzeko arriskuak alerta eragin zuenez, kaltetutako eremuetan honako neurri hauek ezarri ziren:

- **Andaluzian, bektoreen kontrola**, Andaluziako Juntaren, inplikaturako udalerrien eta Doñanako Estazio Biologikoaren artean koordinatutako osasun publikoko ekintzen bidez,
- **Katalunian, sero-inkesta** bat egin zen kaltetutako eremuan (Segriá eskualdean), birusaren

zirkulazioa egiaztatu eta osasun publikoko alerta aktibatu ostean.

Kontrol-neurriak argitaratu ostean, eta nahiz eta **Andaluzian** [uda honetan Niloko birusaren sukarraren hainbat kasu](#) eta **Katalunian** eltxoetan birusaren zirkulazioa egiaztatu, Ministerioak, txosten honetan, **arriskua ertaintzat jo du , oro har**, aurten edo aurreko urteetan gaitza **ekidoetan, hegaztietan edo kutsatutako intsektuetan baietsi zen edo giza kasuak detektatu diren eremuentzat.**

Bestalde, **zaldi, hegazti edo eltxoetan gaitza inoiz detektatu ez den eremuetan transmisio-arriskua txikiagoa da**, baina **aurreikus daiteke** birusak zirkulatzen jarraituko duela eta **bektorea dagoen beste lurralde batzuetara zabaldu ahal izango dela.**

Zoonosi horrek **gizakietan** eragiten duen infekzioa **asintomatikoa edo arina** izaten da, **nahiz eta gaixotasun neuro-inbaditzailea edo larria** eragin dezakeen, eta gaixotasun horrek **ez du** berariazko tratamendurik. Horrexegatik eman ditu CCAEsek laburbildu egin ditugun honako gomendio hauek:

1. [One Health](#) ikuspegia izango duen **plan nazional bat egitea giza osasunari eta animalien osasunari dagokionez.**
2. **Gizakien zaintza epidemiologikoa eta alerta goiztiarren sistemak sendotzea**, klinikoek euren susmo-gaitasuna areago dezaten.
3. **Niloko Mendebaldeko birusaren zaintza pasiboa eta aktiboa sendotzea zaldi eta hegaztietan.**
4. **Bektorea kontrolatzeko jarduerak gauzatzea.**
5. **Azterlan birologikoak egitea** baietsitako kasuetan.
6. **Herritarrei** bektorea kontrolatzeko eta norbera babesteko **neurrien berri ematea.**

Mosquito Alert irabazi asmorik gabeko herri zientziako proiektu kooperatiboa da, eta hainbat [ikerketazentro publikok](#) koordinatzen dute. Xedea da gaitz globalak (besteak beste, dengea, Zika edo Niloko mendebaldeko sukarra) transmiti ditzaketen eltxo inbaditzaileen hedadura aztertzea, zaintzea eta haren aurka borrokatzea. Eltxo tigreia eta sukarraren eltxoa dira Mosquito Alertek zaintzen dituen espezie inbaditzaileetako batzuk.

Esne-behietan antibiotikoak zentzuz erabiltzeko gidak

Animalia Osasun Saitetik, URAGAN proiektuaren barruan (*“Abeltzaintzan antibiotikoak zentzuz erabiltzea”*, Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomikorako, Jasangarritasunerako eta Ingurumenerako Sailak finantziatuta) eta Euskadiko Mikrobioen aurkako Erresistentzien aurkako Jarduera Programarekin (EAEko RAM) koordinatuta, esne-behien sektorean antibiotikoak zuzentuz erabiltzeko gomendio-gida batzuk prestatu dituzte.

Bi dokumentu dira, bata abeltzaintzat eta bestea sektorean lan egiten duten albaitarientzat. Testu honen amaieran dauden esteken bidez pdf bertsioetara sar zaitezke.

Gaixotasun zoonosikoak aztertzekeo adituen nazioarteko talde berria

FAO, OME, OIE eta PNUMA erakundeek goi mailako adituen talde bat aurkeztu dute, pandemiak eragiteko gaitasuna izan lezaketen zoonosiak ikertzekeo, *One-Health* ikuspegiarekin.

Taldeak aipatutako erakunde horiei aholkua emango die, epe luzerako mundu mailako plan bat prestatze aldera, zoonosiak prebenitzea xede, hala nola IAAP H5N1, MERS, Ebola, Zika eta une honetan bizi dugun COVID-19aren pandemia.

Modu orokor batean, honako hauek izango dira emango dituzten lehen pausoak:

- animalietatik pertsonetara eta alderantziz transmisioa egotea zehazten duten faktoreak sistematikoki analizatzea.
- transmisio-arriskua ebaluatzea.
- zaintza-ereduak prestatzea.
- agerraldiak prebenitu eta kontrolatzeko jardunbide egokiak zehaztea.

One-Health ikuspegia aplikatzea; horrek lotu egiten ditu pertsonen, animalien eta ingurumenaren osasuna, eta garrantzi berezia ematen die diziplina anitzeko taldeei arriskuen ebaluazioa gauzatzeko.

Oro har, baliabide naturalen oinarrian presioa egiten duten giza jardueren eragina aztertuko dute (esaterako, elikagaien ekoizpena eta banaketa, azpiegiturak, nazioarteko bidaiak eta merkataritza), horiek gaixotasun zoonotikoak agertzea eragin lezaketelako.

Batzordeak nazioarteko ikerketa-estrategia bat garatuko du, inpaktu handiko zoonosiak prebenitu eta kontrolatzeko. Horretarako, hainbat gomendio emango ditu, honako maila hauetan aplikatu daitezkeen: mundu maila, eskualdea, estatua eta udalerrria

Ildo horretatik, EFSAk duela gutxi argitaratutako albiste batean, *One-Health* printzipioak bere osotasunean aplikatzeko eta legeak ikuspegi horretatik abiatuta egiteko beharra azpimarratzen du. Europako Itun Berdeak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek erabaki hori babesten dute.

EFSAren aburuz, ikuspegi hori ez zaie soilik potentzial zoonosikoa duten arrisku biologikoei aplikatu behar, baizik eta baita gizakien eta animalien osasunari eragin diezaiokkeen ingurumen-mikrobiomari ere.

Azpimarratzen du beharrezkoa dela elikakateak eta sistemak segurtatu eta indartzea, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezkeen.

Helburu hori erdiesteko, EFSAk **diziplina anitzeko lantaldeen alde egiten du bere antolakuntzan, baita Europako beste agentziekin (ECDC, ECHA, EEA, EMA eta JRC) eta beste organismo batzuekin lankidetzan aritzearen alde ere.**

Hori dela eta, datorren urteko ekainean egingo den EFSaren hurrengo konferentziaren izenburua [One-Health, Environment, Society 2022](#) izango da, eta bertan aurkeztuko da **EFSaren 2027ra begirako estrategia berria**; estrategia horren **lehentasunetako bat arrisku-ebaluazioak garatzea da, One-Health ikuspegiarekin, elikakate osoan aplikatzeko, horrek aukera emango baitigu etorkizunean One-Health politiken beharrezanean erantzuteko.**